

**NORMALTASUN BERRIKO KONTINGENTZIA-PLANA (2020ko iraila)**

Normaltasun berrirako kontingentzia-plana diseinatzean, [lan-arriskuen prebentziorako neurriak hartzeko orduan \(2020ko uztaila\)](#), ikastetxeetako jarduera, lanpostu eta espazio guzti-guztietan, oinarriko printzipio hauek hartuko dira kontuan:

1. Kontaktuak mugatzea
2. Prebentzio pertsonalerako neurriak
3. Garbiketa eta aireztapena
4. Kasuen kudeaketa

Kontingentzia-plana egiteko, ezartzeko eta haren jarraipena egiteko, ekintza hauek egin behar dira:

- 1. URRATSA: irakaskuntza-jarduera berrantolatzea:** jarraian zehazten den informazioa eredu gisa erantsitako tauletan jaso daiteke. Planoak edo beste edozein eredu edo formatu ere erabil daitezke, egoera posible bakoitzean aldaketak eta behar berriak identifikatzeko.

- A) Espazioen eta taldeen banaketa: sarrerak – Irteerak eta ikasgelak. (Aforoak identifikatzea geletan)
- B) Giza baliabideak: lanpostuak. Langileen (irakasleak eta irakasle ez direnak) eta taldeen ordutegi-taulak
- C) Kanpoko langileak eta konkurrenteak
- D) Patioak – Atsedenaldiak
- E) Jantokia
- F) Baliabide materialak
- G) Komunikazioa eta kontaktuak
- H) Garbiketa- eta aireztapen-plana

- 2. URRATSA:** 1. urratsean deskribatu den eszenatokitako hartutako [prebentzio-neurriak](#) inplementatzea eta egiaztatzea web-formularioaren bidez

- 3. URRATSA:** Kontingentzia Plan honen berri ematea langile guztiei.

SPRLk online prestakuntza ematen die laguntza- eta jarraipen-batzordeetan/krisi-taldeetan parte hartzen duten laguntzaileei, segurtasun- eta osasun-arlokoiei. Horrez gain, aholkularitza ematen die, ikastetxeei laguntzen die kontingentzia-plan horiek egiten eta ezartzen, eta haien jarraipena egiten du.

Sortutako dokumentazio guztia hezkuntza-ikuskaritzaren eskura dago, dagozkion ondorioetarako.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 31ean

Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuaren arduraduna


HEZKUNTZA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
AMPARO BETEGON HERNANDO



I. ERANSKINA: Jarraibideak: KONTINGENTZIA-PLANA NORMALTASUN BERRIAN

1. URRATSA: JARDUERA BERRANTOLATZEA, HEZKUNTZA SAILEKO SAILBURUORDETZEK ETA OSASUN -AGINTARIEK EMANDAKO JARRAIBIDEEN ARABERA

A) Espazioen eta taldeen banaketa (A taula: ikasgelak – D patioak/atseden-denborak - E: jantokiak)

B) Eskura dauden giza baliabideak eta horien berezitasunak identifikatzea, behar izanez gero jarduera egokitu ahal izateko: irakasleak eta irakasle ez diren langileak: izen-abizenak, etapa, zikloa, taldea, kurtsoa, lanpostua, TES (bereziki sentikorrak), mendeko adingabeak edo adinekoak zaintzeko baimenak dituzten langileak eta lana aurrez aurre egin ezin duten langileak (adibidez, garbitzaileak, atezainak ...)

Funtsezko zerbitzuak eta jarduerak (irakaskuntza, zuzendaritza, garbiketa...) eta lehentasunezko lanpostuak zehaztea, balizko egoera bakoitzean jardueraren jarraipena bermatzeko.

C) Ikastetxean Covid-etik babesteko hartutako neurriei buruzko informazioa komunikatu eta trukatu ahal izateko datuak bilduko dira, bai eta neurri horiek ikastetxetik kanpoko langileekin eta bertaratutako langileekin (udaletxea, bedelak, garbiketa, cateringa, obrak...) bete ahal izateko ere.

F) Baliabide materialak identifikatzea (babesa, garbiketa, seinaleztapena...) eta horniduren arduraduna izendatzea F

G) **Jakinarazpena eta kontaktuak:** Kontingentzia-planaren edukia inplikaturako guztiei jakinarazteko moduak aurreikustea.

Laguntza- eta jarraipen-batzordea ezartzea eta **pertsona bat izendatzea (Covid-19):** segurtasuneko laguntzailea, Covid-19rekin lotutako alderdietarako erreferentziazko pertsona eta Batzordeko kidea. Pertsona horrek laneko arriskuen prebentzioari buruzko oinarritzko prestakuntza jasoko du, bai eta Covid-ri buruzko prestakuntza espezifikoa ere. (32 ordu).

Kontingentzia Planean ezarritako neurriak betetzen direla zaintzeko lanetan, eskolak emateko ordutegi-liberazioa duten pertsonak egon daitezke.

H) Garbiketa- eta aireztapen-plana

Aurreko atalak jasotzen dituen dokumentua prebentziohezkuntza@euskadi.eus posta elektronikoaren gaien testu hau idatzi behar da: **PLANCON gunea ikastetxearen kodea gunea ikastetxearen izena**, adibidez: **PLANCON 14865 EOI GETXO HEO**, SPRLk jakin dezan zein ikastetxetan egin behar duen aholkularitza eta jarraipena.

2. URRATSA: IRAKASKUNTZA-JARDUERETARAKO PREBENTZIO-NEURRIAK EZARTZEA ETA EGIAZTATZEA 1. URRATSEAN PLANIFIKATUTAKO ESZENATOKIETAN

Euskeraz betetzeko esteka: <https://forms.gle/vEqzH9GAdci95NYRA>

Laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako kontsultetarako: prebentziohezkuntza@euskadi.eus eta tresna hauen euskarriarekin lotutako zalantzarik izanez gero, jarri harremanetan SPRLko segurtasun-arduradunarekin: 688670577. Marivi Carazo Alcubilla.